

# EUSKAL TAEKWONDO FEDERAZIOAREN DIZIPLINA ARAUTEGIA

## I. TITULOA

### DIZIPLINAZKO AHALMENAREN ETA ZIGORRETAKO ETA ARAU-HAUSTEETAKOAK

#### I Kapitula Xedapen orokorrak

##### **1. Artikulua**

Euskal Taekwondo Federazioaren diziplina ahalmenaren ariketa hedatzen du pertsona fisiko eta juridiko guztien gainean beragatik eta Federazioaren egitura organikoaren parte diren, baita ere pertsona juridikoen ordezkari moduan jokatzeko duten edo Federazioaren kide diren entitateen gainean edo egitura organikoaren izan daitezkeen.

##### **2. Artikulua**

Diziplina ahalmenaren esparrua lehiaketa arau-hausteen gain hedatzen da, eta kirol arau orokorren arau-hausteen gain ere, indarrean dagoen Euskadiko Kirol Legearen horrela tipifikatuta daudenak, eskubide diziplinarioa erregulatzen duten araudi antolamendu publikoetan, eta Taekwondoko Euskal Federazioaren Estatutuetan eta Arautegi honetan aurreikusitako arau-hausteei.

##### **3. Artikulua**

Diziplina ahalmena bere diziplinapean dauden pertsonak ikertzeko eta, dagokion kasuetan, zigortzeko Federazioari onartutako ahalmena da.  
Diziplina eskubidea Lehiaketa Arau Teknikoen aplikazioan arbitro eta epaileei egotzitako lehiaketa edo frogen zuzendaritza ahalmenaren gain hedatzen da.

#### II. Kapitula

##### Arau-hauste eta zigorrak

##### **4. Artikulua**

Arau-hausteak bi motatakoak izan daitezke:

1. Lehiaketen arauen hauste edo urratzeak.
2. Kirol arau orokorren hauste edo urratzeak.

## 5. Artikulua

1.- Zigorrek dute heziketa, prebentzio eta zentzagarria izaera eta bere inposatzeak interés orokorreko eta kiroletako defentsa izango du helburu bezala. Zigorren ezarpenean, batez ere, arau-hauslearen nahitasuna eta ekintza edo ez egitearen emaitza kontuan hartuko dira.

2.- Diziplina espediente egokiaren bidez, bai lehiaketa arauen bai kiroletako arau orokorren arau haustearen ondorio bezala, inposatutako zigor guztiak berehala betearazleak izango dira, federazio, administratiboak edo jurisdikzionalak organoek baliabide egokiak ezagutu behar ditzatela agintzen dutela kautelazko zigorreko ahalmenei kalterik egin gabe.

3.- Isun ekonomikoaren zigorra kirolarien, teknikoei eta epaileei egiten duten jardueraren ordezkariak edo ordainsariak jasotzen dituztenean bakarrik ezarri ahalko zaie, eta pertsona juridikoei ere.

### I. Atala

#### Lehiaketa arauen hauste eta haien zigorrena

## 6. Artikulua

Lehiaketaren arau hausteak Euskal Taekwondo Federazioak antolatutako lehiaketaren bitartean honen garapen normala urratu, galarazi edo asaldatzen duten ekintza edo ez-egiteak dira.

## 7. Artikulua

Arau-hauste horien egileak kirolariak, entrenatzaileak, ordezkariak eta zuzendariak izan daitezke; era berean, Epaile Taldea eta Klubak osatzen dituztenak ere izan daitezke.

#### Kirolariak, entrenatzaileak, ordezkariak eta zuzendariak egindako arau-hausteak

#### Zigorrak

## 8. Artikulua

Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

### 1.- Arau-hauste oso larriak:

Edozein kasutan, honako hauek aintzakotzat hartuko dira arau-hauste oso larri bezala:

- a) Epaile taldeko kide edo zuzendari, kirol buru, taldekide, ikusle edo, orokorrean, edozein pertsonari egindako erasoak, ekintza hori larria edo kaltegarria denean.
- b) Lehiaketaren behin betiko etetzea eragiten duten ekintzak.

## 2.- Arau-hauste larriak:

Edozein kasutan, honako hauek aintzakotzat hartuko dira arau-hauste larri bezala:

- a) Aurreko artikuluan, A atalean, aipatutako pertsonen egindako erasoak, beti ere, ekintzak, bere larritasunagatik, arau-hauste oso larria suposatzen ez duenean.
- b) Epaile taldeko kide, zuzendari, kirol buru, aurkako taldearen kide, entrenatzaile, ikusle edo, orokorrean, edozein pertsonaren aurka egindako mehatxua, behartzea edo irainketa ekintzak.

## 3.- Arau-hauste arinak:

Edozein kasutan, honako hauek aintzakotzat hartuko dira arau-hauste arin bezala:

- a) Epaileen erabaki errepikatutako eran protestatzea.
- b) Epaileen argibideen betetzearekiko jarrera pasibo edo axolagabea hartzea edo haien aginteak ez betetzea.

## 9. Artikulua

Zigorrak.

Aurreko artikuluan adierazten diren arau-hausteengatik ezarri ahalko diren zigorrak honako hauek izango dira:

### 1.- Arau-hauste oso larriak egiteagatik:

- a) Inhabilitazioa.
- b) Suspentsioa.
- c) Amonestazio publikoa.
- d) Ohartarazketa.
- e) 500 € eta 5.000 € bitarteko isuna, edo ekintza teknikoak gauzatzeko eskubidearen galera.

### 2.- Arau-hauste larriak egiteagatik:

- a) Inhabilitazioa.
- b) Suspentsioa.
- c) Ohartarazpena publikoa.
- d) Ohartarazpena.
- e) 300 € eta 3.000 € bitarteko isuna, edo ekintza teknikoak gauzatzeko eskubidearen galera.

### 3.- Arau-hauste arinak egiteagatik:

- a) Inhabilitazioa.
- b) Suspentsioa.
- c) Ohartarazpena publikoa.
- d) Ohartarazpena.
- e) 100 € eta 300 € bitarteko isuna, edo ekintza teknikoak gauzatzeko eskubidearen galera.



**Epaille taldeko kideek egindako arau-haustek**  
**Zigorrak**

**10. Artikulua**

Arau-haustek oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

**1.- Arau-hauste oso larriak egiteagatik:**

Edozein kasutan, honako hauek aintzakotzat hartuko dira arau-hauste oso larri bezala:

- a) Talde eta/edo kirolari batenganako frogatutako alderdikeria.
- b) Talde eta/edo kirolari batenganako frogatutako alderdikeria, pisatze orduan.

**2.- Arau-hauste larriak egiteagatik:**

Edozein kasutan, honako hauek aintzakotzat hartuko dira arau-hauste larri bezala:

- a) Lehiaketa batean haien funtzioak betetzeari uko egitea edo izendatze bat ekiditeko kausa faltsuak argudiatzea.
- b) Lehiaketa batera justifikazio gabeko ez-agertzea.

**3.- Arau-hauste arinak egiteagatik:**

Edozein kasutan, honako hauek aintzakotzat hartuko dira arau-hauste arin bezala:

- a) Adeitasunik gabeko edozein ekintza edo edozein pertsonari irain, espresio edo keinu desegokiekin zuzentzea.
- b) Parte hartzen duten taldekideen edota kirolarienganako jarrera kiroltasunik gabekoaren aurrean pasibo agertzea.

**11. Artikulua**

Zigorrak.

Aurreko artikuluan adierazten diren arau-hausteengatik ezarri ahalko diren zigorrak honako hauek izango dira:

**1.- Arau-hauste oso larriak egiteagatik:**

- c) Inhabilitazioa.
- d) Suspentsioa.
- e) Ohartarapena publikoa.
- f) Ohartarazpena.
- g) 500 € eta 5.000 € bitarteko isuna, edo ekintza teknikoak gauzatzeko eskubidearen galera.

**2.- Arau-hauste larriak egiteagatik:**

- a) Inhabilitazioa.
- b) Suspentsioa.



- c) Ohartarazpena publikoa.
- d) Ohartarazpena.
- e) 300 € eta 3.000 € bitarteko isuna, edo ekintza teknikoak gauzatzeko eskubidearen galera.

### 3.- Arau-hauste arinak egiteagatik:

- a) Inhabilitazioa.
- b) Suspentsioa.
- c) Ohartarazpena publikoa.
- d) Ohartarazpena.
- e) 100 € eta 300 € bitarteko isuna, edo ekintza teknikoak gauzatzeko eskubidearen galera.

### Klubek egindako arau-hausteak eta zigorrak

## 12. Artikulua

Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

### 1.- Arau-hauste oso larriak:

Edozein kasutan, honako hauek aintzakotzat hartuko dira arau-hauste oso larri bezala:

- a) Klub bateko talde bat lehiaketa batera ez agertzea edo horretan parte hartzeari uko egitea, kasu bietan justifikatu gabe.
- b) Lehiaketaren garapena galarazten duen klub bateko talde baten justifikatu gabeko atzera egitea, behin lehiaketa hasita.

### 2.- Arau-hauste larriak:

Edozein kasutan, honako hauek aintzakotzat hartuko dira arau-hauste larri bezala:

- a) Lehiaketaren garapenamodu larrian edo errepikakorrean asaldatur, aldi baterako edo behin behineko suspentsioa eraginez edota bertaratutako en integritate fisikoa erasoz eta orokorrean istiluak istiluak objektuen jaurtiketa lehiaketa eremura botatzen dutenek.

### 3.- Arau-hauste arinak:

Edozein kasutan, honako hauek aintzakotzat hartuko dira arau-hauste arin bezala:

- a) Larri edo oso larriak ez diren gertakariak.
- b) Lizentzia edo aipatutako lizentzia izapidean dagoela behin-behineko baimen justifikatzailea lehiaketari ez aurkeztea.

## 13. Artikulua

Zigorrak

Aurreko artikuluan adierazten diren arau-hausteengatik ezarri ahalko diren zigorrak honako hauek izango dira:



### **1.- Arau-hauste oso larriak egiteagatik:**



- a) Topaketaren edo, bere kasuan, kanporaketaren galera.
- b) Lehiaketan deskalifikazioa.
- c) Puntu murrizketa sailkapenean.
- d) 500 € eta 5.000 € bitarteko isuna.
- e) Baja federazioan.

### **2.- Arau-hauste larriak egiteagatik:**

- a) Topaketaren edo, bere kasuan, kanporaketaren galera.
- b) Lehiaketan deskalifikazioa.
- c) Puntu murrizketa sailkapenean.
- d) 300 € eta 3.000 € bitarteko isuna.
- e) Baja federazioan.

### **3.- Arau-hauste arinak egiteagatik:**

- a) Topaketaren edo, bere kasuan, kanporaketaren galera.
- b) Lehiaketan deskalifikazioa.
- c) Puntu murrizketa sailkapenean.
- d) 100 € eta 300 € bitarteko isuna.
- a) Baja federazioan.



## **II. Atala**

### **Kirol arau orokorren arau-hausteak eta zigorrak**

#### **14. Artikulua**

Euskal Taekwondo Federazioaren Estuatutuetan eta araudi honetan diziplina eskubidea erregulatzen duten arau-antolamendu publikoetan, indarrean dagoen Euskadiko Kirol Legearen aurkakoak diren eta aurreko atalean sailkatzen ez diren ekintza eta ezegiteak arau orokorren hausteak dira.

#### **15. Artikulua**

Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

#### **1.- Arau-hauste oso larriak:**

Edozein kasutan, honako hauek aintzakotzat hartuko dira arau-hauste oso larri bezala:

- a) Laguntza edo diru-laguntzak kontzesio hitzarmenetan edo dagokion oinarrietan ezarrita dauden bestelako helburuekin erabiltzea.
- b) Laguntza eta diru-laguntzak lortzeko eskatutako dokumentuen eta datu errealen funtzesko asaldatzea.

- c) Egozketa eta eskuduntzen legez kanpoko bereganatzea.
- d) Oso larria da diziplina eta hauteskunde organoen partaideen arau estatu betebeharren ez-betetzea.
- e) Kirol instalazioen segurtasun eta higieinarekin lotutako arau federatiboan ez betetzea, horietara bertatzen diren pertsonentzat arrisku oso larria suposatzen dutenean.
- f) Segurtasun eta arrisku estaldura arauak betetzen ez dituzten ekintzen antolaketa, ekintzaren burutzeak hirugarrenei arrisku oso larriak sortzen dizkienean.
- g) Euskal Taekwondo Federazioaren arau estatuetakoa eta arautegikoak erreglamentario eta hitzarmenen ezbetetzeak errepikakor eta agerikoa.
- h) Epaila, kirolari, tekniko, kirol agintari eta lehiaketa edo froga ofizial edo ez ofizialetako beste parte hartzaileenganako eraso, intimidazio eta behartzea.
- i) Autoritate neurrigabekeriak.
- j) Lehiaketa edo froga baten burutzea edo horren behin behineko edo behin betiko bertan behera ustazteratzen behartzen duen protesta edo ekintza kolektiboa.
- k) Indarkeria sustatzen duten kirolarien, teknikoen, epailen eta zuzendarien adierazpen publikoak eta bestelako ekintzak.
- l) Autoritate federatiboan aurkako irain eta adierazpen difamatorio larriak, idatziz eta hedapen telematikoan bidez egiten direnean.
- m) Debekatutako sustantzien sustapen, bultzatze eta kontsumoa edo debekatutako metodoen erabilera eta horien kontrola galarazten duen edozein ekintza edo ezegitea.
- n) Lehiaketaren, ofiziala edo ez, emaitza aurretik zehazteko joera duten ekintza edo ezegiteak.
- o) Arau-hauste larri edo oso larriengatik ezarritako zigorraren urratzea.
- p) Arau-hauste larrien egite errepikakorra.
- q) Kirol Zuzenbidearen Euskal Batzordearen erresoluzioen ez egitea.
- r) Beste garapenerako edozein jokaera larriki erasotzaile eta kirolletako modalitatearen praktika.
- s) Arau teknikoaren aurkako kirol material edo ekipamenduaren manipulazio edo alterazioa, bai pertsonalki, bai bitarteko pertsona baten bidez, froga edo lehiaketaren segurtasuna asaldatu dezaketenean edo pertsonen integritatea arriskuan jarri dezaketenean.



## 2.- Arau-hauste larriak:

Edozein kasutan, honako hauek aintzakotzat hartuko dira arau-hauste larri bezala:

- a) Hutsegite arinengatik ezarritako zigorraren haustea.
- b) Diziplina edo hauteskunde organoen kide direnen jardueragabetasuna edo zereginen utzikeria, haien betebeharren ez betetzea oso larria ez denean.

- c) Euskal Taekwondo Federazioaren Selektzioen deialdietara ez agertzea justifikazio gabe.
- d) Lehiaketa edo froga baten garapen normala asaldatzen duen protesta, beti ere hau etetera behartzen ez badu.
- e) Epaile, kirolari, tekniko, kirol buru, entrenatzaile edo bertaratutako ikusleenganako irain edo ofentsak.
- f) Beharrezkoak diren titulazio edo autorizazio gabe epaile edo teknikoei dagozkien ekintzak burutzea.
- g) Arau-hauste arinak modu errepikakorrean egitea.
- h) Beharrezkoa den baimen gabe izaera ofiziala duten ekintza, froga edo lehiaketak antolatzea.
- i) Betetako jarduera edo funtzioarekin bateraezina ebatzitako jarduera publiko zein pribatuan aritzea.
- j) Kirol lehiaketaren garapenak eskatzen duen duintasun edo ohorearen aurkako jokaera erasokor agerikoa edo publikoa.
- k) Kirol instalazioen segurtasun eta higie-nearekin lotutako arau federatiboen ez betetzea, horietara bertatzen diren pertsonentzat arrisku oso larria suposatzen dutenean.
- l) Euskal Taekwondo Federazioaren arau estatutario eta erreglamentario eta hitzarmenen ezbetetze soila.
- m) Segurtasun eta arrisku estaldura arauak betetzen ez dituzten ekintzen antolaketa, beti ere ekintzaren burutzeak hirugarrenei arriskurik sortzen ez duenean.
- n) Erretentzio eskaera, luzapen, hezkuntza, konpentsazioa edo analogoen eskubide eskaera debekuaren ez betetzean parte hartzea hamasei urtetik beherakoen aldetik, Autonomia Erkidegoen errotutako erakundeen artean.
- o) Aginpidedun pertsona eta organoek emandako jarraibide, hitzarmen eta aginduen ez betetzea.



### 3.- Arau-hauste arinak:

Edozein kasutan, honako hauek aintzakotzat hartuko dira arau-hauste arin bezala:

- a) Epaile, tekniko, kirol buru, kirolari edo bertaratutako ikusleei egindako obserbazioak, beti ere desegokitasun bat suposatzen duelarik.
- b) Epaileen eta bestelako kirol buruen argibide eta aginduak betetzearekiko jarrera pasibo hartzea edo haien aginteak ez betetzea, haien funtzioa betetzean.
- c) Ez betetze arina suposatzen duten diziplina edo hauteskunde organoen kide direnen jardueragabetasuna edo zereginen utzikeria.
- d) Antolamendu federatiboak barnebiltzen dituen pertsona edo entitateenganako neurrigabeko edo iraingarriak diren adierazpenak.
- e) Larriak edo oso larriak ez diren kirol arauen aurkako jarrera argiak.




## 16. Artikulua

Zigorrak

Aurreko artikuluan adierazten diren arau-hasuteengatik ezarri ahalko diren zigorrak honako hauek izango dira:

### 1.- Arau-hauste oso larriak egiteagatik:

- a) Lizentzia gabetzea urte betez gutxienez eta bost urtez gehiengoz.
- b) Lizentzia gabetzea.
- c) 500 € eta 5.000 € bitarteko isuna.
- d) Kargu eta funtzio gaitasungabetzea urtebetez gutxienez eta bost urtez gehiengoz.
- e) Froga edo lehiaketak ospatu bitartean kirol instalazioetara sartzeko debekua urte betez gutxienez eta bost urtez gehiengoz.
- f) Kategoria jaitsiera.
- g) Lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
- h) Lehiaketatik behin behineko kanporatzea.
- i) Jaurdunaldi edo frogra bat baino gehiagoren baliokide diren puntuen edo sailkatze postuen galera.



### 2.- Arau-hauste larriak egiteagatik:

- a) Lizentzia gabetzea hilabetez gutxienez eta urtebetez gehiengoz.
- b) 300 € eta 3000 € bitarteko isuna.
- c) Kargu eta funtzio gaitasungabetzea gehienez urtebetez.
- d) Froga edo lehiaketak ospatu bitartean kirol instalazioetara sartzeko debekua urtebetez gehienez
- e) Lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
- f) Lehiaketatik behin behineko kanporatzea.
- g) Jaurdunaldi edo frogra bat baino gehiagoren baliokide diren puntuen edo sailkatze postuen galera.
- h) Ohartarazpen pribatua.
- i) Ohartarazpen publikoa.



### 3.- Arau-hauste arinak egiteagatik:

- a) Lizentzia gabetzea gehienez hilabetez.
- b) 300 € rainoko izuna.
- c) Lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
- d) Lehiaketatik behin behineko kanporatzea
- e) Ohartarazpen pribatua.
- f) Ohartarazpen publikoa.

## III. Kapitula

## Erantzukizunaren azkentzea

### **17. Artikulua**

Erantzukizuna azkentzearen kausak.

1.- Kirol diziplina erantzukizuna kasu guztietan itzaliko da:

- a) Zigorra betetzeagatik.
- b) Arau-haustearen preskripzioagatik.
- c) Zigorren preskripzioagatik.
- d) Zigortuaren edo erruztatuaren heriotzagatik.
- e) Zigortutako edo erruztatutako kirol entitatearen itzaltzeagatik.
- f) Zigorren barkamenagatik.

2.- Federazioan elkarketa baldintzaren galera, oraindik ahal denean eragin dezaten inposatutako zigoren eraginkortasuneko kasu batzuk, ez da diziplinazko erantzukizunaren itzaltze kasua.



### **18. Artikulua**

Arau-hauste eta zigoren preskripzioa.

1.- Arau-hausteak hiru urtera, urtebetera edo hilabetera preskribatuko dira, oso larriak, larriak edo arinak direnaren arabera, preskripzio-epea arau-haustea eginiko egunean zenbatzen hasita. Ekintza jarrai batengandik eratorritako arau-hausteen kasuan, jardueraren amaiera edo arau-haustea kontsumitzen duen azken ekintza izango da hasiera data.

2.- Preskripzioaren epea zigor prozesuaren hasiera jakinarazten den momentuan geldiaraziko da. Prozesu honek hilabetez baino gehiago geldi badago, arau-hausteari egotzi ezin zaior arrazoiaren ondorioz, dagokion epea oso-osorik igaro beharko da berriro.

3.- Zigorrak hiru urtera, urtebetera edo hilabetera preskribatuko dira, oso larriak, larriak edo arinak direnaren arabera, zigorra ezarri zeneko erabakiak indarra hartzen duen egunaren biharamunean edo hasita egongo balitz bera betetzea urratzen denei zenbatzen hasiko da.

### **19. Artikulua**

Zigortuei haien erabilitazioa eskatzeko aukera onartzen zaie, ondoriozko aurrekariaren ezeztatzearekin batera, hurrengo epeetan zigorren betetzea aurrera:

- a) Sei hilabetetara, zigorra akats arinagatik izango balitz.
- b) Bi urtetara, akats larria izango balitz.

c) Lau urtetara, akats oso larria izango balitz.

Errehabilitazioa zigorra ezarri duen organo berari eskatuko zaio, eta prosezua akatsaren epaitze eta zigorra betetzeko jarraituko da, baliabide berdinekin.

#### IV. Kapitulum

##### Erantzukizunaren baldintza modifikatzailea

#### **20. Artikulua**

Honako hauek erantzukizuna salbuetsi dezaketen kausak dira, lehiaketaren arauen aurkako arau-hausteei aplikatu daitezkenak:

- a) Ustegabeko kasua.
- b) Ezinbesteko kasua.
- c) Eraso bat ekiditeko legezko defentsa.

#### **21. Artikulua**

Erantzukizunaren baldintza modifikatzaileak.

1.- Diziplina erantzukizuna alda dezaketen baldintzak aringarriak edo larrigarriak izan daitezke.

2.- Honako hauek kirol lege orokorren aurka aplikatu daitezken baldintza aringarriak dira:

- a) Arau-haustearen aurreko instantean probokazio nahiko jasan izana.
- b) Berehalako damutzea.
- c) Eragindako kalteen konpontzea, beti ere berehalakoa eta aurretikoa bada.

3.- Honako hauek, aurrekoen gain, kirol lege orokorren aurka aplikatu daitezken baldintza aringarriak dira:


- a) Aurretik zigorrik jasan ez izana kirol historian.
- b) Sortutako baino kalte arinago eragiteko nahitasuna.

4.- Honako hauek, kirol lege orokorren aurka aplikatu daitezken baldintza larrigarriak dira:

- a) Errepikatzeak.
- b) Salneurria.

5.- Honako hauek, aurrekoen gain, kirol lege orokorren aurka aplikatu daitezken baldintza larrigarriak dira:

- a) Epailen erabakiak berehala ez obeditzea, jarrera hori arau-hauste bezala tipifikatzen direnean izan ezik.
- b) Egindako arau-hausteren bidez lehiaketaren garapen normala asaldatzea.
- c) Ikusle modura, lizentzia federatiboa edukita, edozein arau-hauste egitea, bai



kirolari, entrenatzaile ordezkari edota bai epaile edo teknikoa izanik.

- d) Berrerorlea izatea. Berrerortzea azalduko da egilea aurretik zigortu izan balitz, denboraldiaren garapenean, kirol disziplinaren edozein arau-hausterengatik larritasun berdin edo handiagoagatik, edo arau-hauste horren larritasuna baino gutxiago duten bi arau-hausterengatik.

6.- Diziplina organoek, haien kirol diziplina eskubidearen jardueran, egoki estimatzen duten mailan ezarri ahalko dute zigorra, gertakarien naturaren, arduradunaren izaera, arau-haustearen ondorio eta baldintza aringarri edo larrigarrien aldiberekotasunare arabera.

## **V. Kapitulu**

### **Kirol diziplinaren antolamendutakoa**

#### **22. Artikulua**

Euskal Taekwondo Federazioaren Diziplina eskubideen jarduera Diziplina Batzordeari eta Apelazio Batzordeari dagokio.



#### **I Atala**

### **Diziplina Batzordea**

#### **23. Artikulua**

Diziplina Batzordea ira kidez osatutako kolegiatutako organoa izango da. Bai Batzordeko Presidenteaa, bai bere kideak Euskal Taekwondo Federazioaren Zuzendaritza Batzortzordeak izendatuko ditu.

Diziplina Batzordeko kideak lau urtetako eperako izendatuko dira. Edozein kasutan jarraiko epetarako izendatu ahal izango dira.

Zuzendaritza Batzordeak Disziplina Batzordeko kideak kargua uztera behartu ditzake, justifikatutako kausagatik eta motibiatutako erresoluzioaren bidez.

Zuzendaritza Batzordeko kideak ezin izango dira Diziplina Batzordeko kiderik izan.

#### **24. Artikulua**

Diziplina Batzordea baliozkoa izango da saiora bere kideen gehiengoa agertzen denean, bere eskumeneko gaietan hitzarmenak baliozki hartu ahal izanez.

Aipatutako hitzarmenak gehiengoagatik hartuko dira, berdinketaren kasuan Presidentearen bozka kalitatezkoa izango zelarik.

## **25. Artikulua**

Batzordeak Idazkari bat izango du, bere Presidenteak izendatua, Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, Federazioko Idazkari izan daitekeena; hau saioetara agertuko da hitza edukita baina bozka eskubiderik gabe.

Idazkariak Batzordearen bileren akta egingo du, bertaratutakoak, landutako gaiak eta hastutako erabakiak jasoz.

Baliabide elektronikoen bidez deialdia egin, osatu eta hitzarmenak hartu ahal izango dira. Presidenteak bilerak hitzartu ahal izango ditu baliabide elektronikoen bidez, ohiko eta ez ohiko deialdi guztientzat edo sesio zehatzetarako. Aipatutako hitzarmena, kideei jakinaraziko zaie eta hurrengoak zehaztuko ditu:

- a) Deialdia bidaltzeko erabiliko den baliabide elektronikoa.
- b) Bilera egiteko erabiliko den baliabide elektronikoa.
- c) Gai-zerrendarekin erlazionatutako puntuekin lotutako dokumentazioa kontsultatu ahal izango den baliabide elektronikoa eta hau eskuragarri egongo den denbora.
- d) Mahai- inguruetan eta deliberazioetan parte hartzeko modua eta horien epea.
- e) Bozka emateko bidea eta bozkatzeko epea zenbateko iraupena izango duen.
- f) Saioen aktaren hedapen bidea eta hauek kontsultatzeko epea.

Sistemak informazioaren segurtasuna, osotasuna, konfidentzialtasuna eta egiazkotasuna bermatuko ditu, Batzordeko kideei sarbide mugatua emanaz.

## **26. Artikulua**

Bai lehiaketa arau-hausteengandik bai kirol arau orokorregandik eratorritako diziplina gaiei irtenbidea ematea Diziplina Batzordearen lehenengo lerroko eskumena da.

## **II. Atala**

### **Apelazio Batzordea**

## **27. Artikulua**

1.- Apelazio Batzordea hiru kidek osatuko dute. Bai Batzordeko Presidenteak bai horren kideak Euskal Taekwondo Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu.

2.- Apelazio Batzordearen kideak lau urteko eperako izendatuko dira. Kasu guztietan jarraiko epeetarako izendatu ahal izango dira.

Zuzendaritza Batzordeak Apelazio Batzordeko kideak kargua uztera behartu ditzake, justifikatutako kausagatik eta motibiatutako erresoluzioaren bidez.

3.- Zuzendaritza Batzordeko kideek ezingo dira Apelazio Batzordearen parte izan.

## **28. Artikulua**

Diziplina Batzordeak emandako erresoluzioen aurka jarritako errekurtsoen ezagutza Apelazio Batzordearen eskumena da.

Lehiaketa Batzordeak edo erkidegoetako Federazioen epaileak emandako erresoluzioen aurka jarritako errekurtsoen ezagutza Apelazio Batzordearen eskumena ere bada.

Apelazio Batzordeak hartutako erabakiak Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean inpugnatu ahal izango dira.



## **II. TITULUA**

### **DIZIPLINA JARDUNBIDETAKOA**

#### **I. Kapituluak**

##### **Printzipio orokorrak**

## **29. Artikulua**

Diziplina jardunbideak.

1.- Diziplina erantzukizunen garbiketa ohiko eta ez-ohiko jardunbideen bidez egingo da.

2.- Ez-ohiko jardunbidea, lehentasun eta sumarietate printzipiotan oinarritutakoa, batez ere lehiaketa arau-hausteei aplikagarria izango da.

## **30. Artikulua**

Diziplina erantzukizun eta erantzukizun penalen konkurrentzia.

1.- Diziplina Batzordeak, ofizioz edo interesa duen instantzian, delitu edo huts penal izaera duten gertakizunak Fiskaltzari jakinarazi beharko dizkio. Kasu honetan, Batzordeak hitzartuko du jardunbidearen etendura dagokion erresoluzio judiziala egokitu arte.

2.- Dena dela, aurrean aipatutakoari dagokienez, Diziplina Batzordeak beharrezko kautela neurriak hartu ahalko ditu.

### **31. Artikulua**

Diziplina erantzukizun eta erantzukizun administratiboen konkurrentzia.

1.- Gertakizun berak Kirol Legeak eta bere garapen araudi publikoak erregulatutako erantzukizun administratiboak ekar litzakeen kasuan, eta araudi honetan aurreikusitako diziplina erantzukizunei, Euskal Taekwondo Federazioaren Diziplina Batzordeak, ofizioz edo alde baten instantziaz, dagokion organi administratiboari jakinarazi beharko dio, hau dana diziplina jardunbidearen tramitazioari kalterik egin gabe.

2.- Diziplina Batzordeak administrazio erantzukizuna bakarrik ekar lezakeen gertakizunen berri izango balu, aurrekariak dagokion organo administratiboari jakinaraziko dizkie.

### **32. Artikulua**

1.- Horrela, Diziplina Batzordeak hitzartzeko, espedientea hasterakoan, akatsaren eraginkortasuna babesteko edo konponezina den kaltea ekiditeko, dagokion kautela neurriak hartzeko ahalmena izango du.

Neurri hauek espedientearen tramitazioaren bitartean eta horren ebazpenaren bitartean baliozkoak izango dira.

2.- Legeek babestutako eskubideen bortxaketa inplikatzan duten neurriak ezingo dira ez hartu ezta aplikatu ere.

### **33. Artikulua**

1.- Interesatuak haien asmoak alde batera utzi ditzakete jardunbidearen edozein fasetan, aldera batera uzte horrek adierazi duenaren gain bakarrik eragiten duenean.

2.- Alde batera uztea Diziplina edo Apelazio Batzordeen aurrean adierazi beharko da, bai idatziz edo bai ahoz agertze bidez, azken kasu honetan dagokion diligentzia hedatu eta harpidetuz.

3.- Alde batera uzteak diziplina espedientearen amaiera eta artxibatzea suposatuko du, eskaera hori egin ez duten beste interesdunak daudenean izan ezik, edo bai Disziplina Batzordeak bai Apelazio Batzordeak jardunbide honekin aurrera jarraitzea hitzertzen dutenean, interes orokorreko arrazoiengatik.

## II.Kapitulua

### Ohiko jardunbidetako

#### **34. Artikulua**

1.- Kirol Diziplina jardunbidea, kapitulu honetan erregulatutakoa, Diziplina Batzordeak hasiko du, probidentziaren bidez, instruktorea izendatuz.

Izendapen hau Batzordeko Presidenteak egingo du.

2.-Probidentziak, gutxienez, hurrengoko datuak edukiko ditu:

- a) Espedientearen hasiera sustatu duten gertakariei erreferentzia laburra eta horiek gertatu zireneko datari.
- b) Espedientearen hasiera data.
- c) Interesdunak edo ukituak.
- d) Dagokion kasuan, hartutako kautelazko neurriak.
- e) Dagokion kasuan, Batzordearen intereseko froga baliabideak edo espedienteari lotutako dokumentuak, honen edo hirugarrenen instantziak.

Aipatutako probidentzia Batzordearen Idazkariak edo honek eskuordetzan uzten duen pertsoanak jakinaraziko die interesdunei.

#### **35. Artikulua**

1.- Administrazio orokorreko jardunbideentzat indarrean dagoen legedian aurreikusitako abstentzio eta errekusatzeko kausak Idazkariari eta Instruktoreari aplikatu ahal izango zaizkio.

2.- Errekusatze eskubidea Diziplina Batzordearen aurrean burutu ahal izango da, baliiodun bost eguneko epean, espedientearen hasieraren probidentziaren ezagutza eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3.- Diziplina Batzordeak dagokiona baliiodun diren zazpi egunen epean hitzartuko du, emandako ebazpenaren aurka dagokion errekurtsioak egiterakoan erreklamazioa gauzatu ahal izango delarik.





### 36. Artikulua

Diziplina Batzordeak salaketa jasotzean edo uztezko arau-hauste baten ezagutza duenean, gordetako informazioaren jarraibidea hitzartu ahal izango du espedientearen hasiera, edo, dagokion kasuan, espedientearen artxiboa erabakitzen den probidentzia egin aurretik.

### 37. Artikulua

1.- Behin espedientea hasita, eta horren hasiera jakinarazita, eta Batzordeak beharrezkoak deritzon kautela neurriei kaltetu gabe, Instruktoareak, jakinarazpenaren bosteko hamar egunen barruan fase probatorioa zabalduko du, hogeit egunetik beherako eta bost egunetik gorako epean, zeinen bitartean gertakariak argitzeko eta horiengandik eratorritako erantzukizunak determinatzeko beharrezko diren beste diligentzia froga burutuko dira.

Instruktoarearen esku egongo da burutu beharreko diligentziak determinatzea, bai berorren instantziaz edo bai interesdunek idatziz aurkeztutako eskaera edo proposamen bidez aurreko paragrafoan adierazitako epearen barruan, interesatuei agindutako edo onartutako frogen lekua, eguna eta ordua jakinaraziz.


2.- Espedientearen tramitazioa eta ebazpenerako garrantzitsuak diren gertakariak lege onargarri den edozein froga bidez egiaztatu ahal izango dira.

3.- Instruktoarearen erabakien aurka, frogen burutzearen onartze edo ezeztatzearen errekurtsorik ez da onartuko, interesdunak bere eskaera erreproduzitzeari kalterik egin gabe, bai erresoluzioaren aurreko audientzia tramitean bai formulatzen eta dagokion ebazpena horren aurkako errekurtsotan.

### 38. Artikulua

1.- Burututako ekintzak ikusita, Instruktoareak, froga epearen amaieraren ondoko hamar egunen barruan, karguen plegua egingo du, non egotzitako gertakariak azalduko diren, dagokion kasuan burutu diren frogen emaitza eta espedientearen ebazpenaren proposamena. Hau guztia interesdunei jakinaraziko zaie, jakinarazpenetik zenbatzen hasita hamar baliodun diren egunetako epera, haien eskubide eta interesak babestuz egoki deritzoten adierazi ditzaten.

2.- Karguen plegu eta ebazpenen proposamenari erantzuna emanez, edo interesdunen tramieta ebakatu ezean aipatutako epean, Instruktoareak, hamar eguneko epean, Diziplina Batzordean igoko du espedientea erabakia hartzeko, hasierako ebazpenaren proposamena mantenduz, edo dagokion kasuan, era arrazoituan modifikatuz egindako alegazioen arabera.



3.- Ebazpena diktatu aurretik Diziiplina Batzordeak, ebazpena diktatzeko terminoaren suspentsioarekin, dagokion momentuan interesdunek proposatutako diligentzia frogak, eta hauek azkenean proposatzeileari egotzi ezin zaion edozein arrazoirengatik burutu ez direnean, praktikara agindu ahal izango ditu.

### **39. Artikulua**

Ebazpenak espedienteari amaiera emango dio, bigarren instantzia edo apelazio federatiboari kalterik egin gabe.

## **III.Kapitulua**

### **Ez-ohiko jardunbidetako**

### **40. Artikulua**

1.- Lehiaketa arauen aurkako arau-haustea egin delako edo kirol lehiaketa baten ondoriozko arau hausteagatik Diziiplina Batzordearen berehalako interbentzioa beharrezko duten suposizio guztietan, eta lehiaketaren garapen normal bermatzeko, Diziiplina Batzordeak aldi bereko frogen, zeinen artean garrantzi beretzia izango duten epailearen edo ordezkari federatiboaren txostenak, burutzea edo interesdunen alegazio tramitea burutu ahal izango du, ahozkoa izan ahalko delarik, eta lehiaketaren garapen edo jarraipen normalak errekeritzen duen larritasunarekin ebazpena eginez.

2.- Era berean, Diziiplina Batzordeak behin-behineko suspentsioak edo beharrezko den beste edozein kautela neurri hartu ahal izango du.

3.- Interesdunen aurretiazko audientzia printzipioa beti babestuko da, baita hartutako hitzarmenen kontra aurka errekurritzeko eskubidea beharrezko diren instantzien bidez

4.- Diziiplina Batzordeak, gertakari edo larritasunaren arabera, Instruktoarea izendatu dezake edo ez.


Federazioaren edo honek delegatutako pertsonak jokatuko du Idazkari moduan.

## **IV. Kapitulua**

### **Jakinarazpen eta errekurtsioak**

### **40. Artikulua**

1.- Kirol Diziiplina jardunbidetan diktatutako probidentziak eta ebazpenak interesdunei jakinarazi eta azalduko beharko zaizkie, erabakien edo hitzarmenen edukiak eta, kasu bakoitzean dagokion erreklamazioen edo errekurtsioen edukiaren adierazpena eginez,



horiek hartu zirenetik gehienez hamar eguneko epean ohiko jardunbidearen kasuan, eta bost eguneko epean ez-ohiko jardunbidearenean.

2.- Jakinarazpenak interesadunen egoitzetan edo etxebizitzetan jakinaraziko dira, zertifikatutako gutun, fax, telegrama, posta elektronikoa edo interesdunek jaso dutela jakitea ahalbidetzen duen beste edozein komunikabideren bidez.

3.- Hitzermen edo ebazpenaren eraginak edo garrantzaiak aholkatzen duenean, dagokion Batzordeak, bere publikazioaz gain, hedapen edo komunikazio publikoak erabili ahal izango ditu, beti ere ohore eta intimitate eskubidea errespetatuz indarrean dagoen legearen arabera.

#### **41. Artikulua**

1.- Araudi honetan edo estatutu disposizioetan edo dagokion araudietan erreklamazio edo errekurtsio epe bat ezartzen ez denean, interesdunek haien erreklamazio edo errekurtsioak jarri ahalko dituzte hamar eguneko epe barruan.

2.- Araudi honetan edo estatutu disposizioetan edo dagokion araudietan erreklamazio edo errekurtsio epe bat ezartzen ez denean, Kirol Diziiplina gaitan egindako erreklamazio edo errekurtsioak, desestimatu edo ezeztatutzat emango dira hogeita hamar egunen buruan hauen jartzetik, honek hitzarmen edo ebazpena diktatzeko beharra ostopatzen ez duelarik.

3.- Aurreko zenbakietan aipatutako epeak horrela hasiko dira zenbatzen: lehenengoa, jakinarazpena hitzarmen edo ebazpena moduan zeinen aurka errekurtsioa aurkeztu edo errekamatzen den egunaren biharamunean; bigarrena, artikulua honetan esaten denaren arabera erreklamazioa edo errekurtsioa desestimatu bezala uler daitekeen egunaren biharamunean.

#### **42. Artikulua**

Interesatuek Euskal Federazioaren Diziiplina Batzordeak edo erkidegoetako Federazioen Lehiaketa Epailak diktatutako diziiplina ebazpenaren aurkako errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute Euskal Taekwondo Federazioaren Apelazio Batzordearen aurrean.

#### **43. Artikulua**

1.- Errekurtsioak idatziz formalizatu eta aurkeztuko dira, Euskal Taekwondo Federazioaren etxebizitza edo egoitzan, Apelazio Batzordeari zuzenduta. Administrazio orokorreko jardunbidearen dispozizio erregulatuazaleetan aurreikusitako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

2.- Errekurtsoak formalizatzen dituen idatziak honako hauek eduki beharko ditu:

- a) Errekurritzailearen eta gainontzeko interesdunen identifikazio datuak, bere legitimazioaren justifikazio aktibo edo pasiboarekin.
- b) Errekutritzen den ekintzaren, hitzarmenaren edo erresoluzioren adierazpen argia, adierazi balitz horren kopiarekin, edo, gutxienez, espediente zenbakia eta errekutritzen edo erreklamatzeko den ebazpenaren data adieraziz.
- c) Errekurtsoa sustatzen duten alegazioen azalpena, eta hau oinarretzen den fundamentuena.
- d) Dagokion kasuan, bigarren instantzian, burutzeko proposatzen diren frogak diligentziak.
- e) Eta egindako pretentsioen azalpen zehatza.

3.- Errekurtsoa Euskal Taekwondo Federazioan 20 €ko gordailua egin denaren justifikantearekin aurkeztu beharko da. Kopuru hori interestunari itzuliko zaio, beti ere errekurtsoa bere aldekoa bada.

4.- Errekurtsoa, kasu guztietan, gehiengoz hogeita eguneko epean ebatziko da, jarri zenetik zenbatzen hasita.

Ez-ohiko jardunbide batean diktatutako ebazpena baten aurka den errekurtsoen kasuetan, epea zazpi eguneko edo gutxiagokoa izango da, aurretiaz horrela ezarri izan balitz.

#### 45. Artikulua

Errekurtsoaren aurkezpenak ez du errekutritzen ari den akatsaren betetzea etengo, Apelazio Batzordeak horrela hitzartzen duenean izan ezik, bai ofizioz, edo bai interesdunak eskatzen duenean.

#### 46. Artikulua

1.- Euskal Taekwondo Federazioko Apelazio Batzordeak diktatzen dituen hitzarmen eta erresoluzioek bide federatiboa agortzen dute eta Euskal Kirol Justizia Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira.

2.- Euskal Kirol Justizia Batzordeak diktatzen dituen hitzarmen eta erresoluzioek bide administratiboa agortzen dute eta aplikatu daitezkeen arau juridikzionalen konponketarekin errekurritu ahal izango dira juridikzio auzi-administratiboaren aurrean.

#### 47. Artikulua

Euskal Taekwondo Federazioak ezarritako zigorren liburu edo erregistro bat izango du eskura, ezarritako zigorra existitzen dela eta horren data zein den jakiteko soilik; bere preskripzio epeak; kausa modifikatzailearen aldiberekotasuna eta errehabilitazio

eskubidearen burutzea.

#### **48. Artikulua**

Ordezko izaerarekin, jardunbide gaien aplikagarria izango da Euskadiko Kirol Legean eta kirol diziplinaren Araudi publiko erregulatzaileretan ezarritakoa eta, dagokion kasuan, Euskal Taekwondo Federazioaren estatutuetan aurreikusitakoa, baita ohiko jardunbide administratiboaren arau erregulatzaileretan ezarritakoa.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Kirol Diziplina Araudi honek aurrekoa indargabetzen du eta indarrean egongo da Euskal Federazioaren Asanblada Orokorren barnean onartu eta gero, behin Euskal Gobernuaren Kirol eta Aktibitate Fisikoaren Zuzendaritzak onartuta eta Euskadiko kirol Entitateen Erregistroan izena eman eta gero.

Bilbon, 2017ko urtarrilaren 28an.

